



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2008-12-30

VIURTEA 1.593 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Senideez eta lagunez inguraturik sartu zen atzo ibartarra Martuteneko espetxean. A. IMAZ

Goar Jimenezen espetxeratzea salatu dute ehunka herritarrek

IBARRA 300 lagun irten ziren kalera atzo, «polizia muntaia» salatzeke; bihar arratsaldean ere, manifestaziora deitu dute s


GEMMA ZELAIA IKASTN ZERBITZUAREN ARDURADUNA

«Eskualdeko heziketa norabide batean eskaintzen dugu»

TOLOSALDEA Geroz eta jende gehiagok erabiltzen du zerbitzua informazioa eskuratzeko 6



L.T.



Goian, Zeberio eta Urrutia. Behean, Otaegi zizurkildarra. JOSEBA ZABALZA/HITZA

Zeberio eta Otaegik garaipena eskuratu dute

TOLOSALDEA Zizurkildarrak II. Mailako Aizkolari Txapelketa irabazi du; elduaindarrak IV. Martiko Txapelketa lortu du, Urrutiari irabazi ostean 2



Salmenta puntuak:
Tolosako
OSKI arropa denda
Leitzako
TORREA tabernan
eta HITZAren Tolosako
eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak
jertseak • fularrak
buffak...

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



Otaegik eskuratu du II. Mailako Aizkolari Txapelketako saria

Zizurkil » Igandean irabazi zuen Zizurkilgo aizkolariak txapela; datorren denboraldian Euskadiko Maila Nagusian ariko da.

ERREDAKZIOA

Joseba Otaegi zizurkildarrak irabazi zuen igandean Arbizun (Nafarroa) izan zen II. Mailako Euskadiko Aizkolari Txapelketa. Bere lehen garaipena da maila honetan eta Jose Angel Zubiaga arabarrari 20 segundoko aldea aterata lortu zuen. Bi aizkolariak Euskadiko Maila Nagusian ariko dira, honen bestez, datorren denboraldian.

Zizurkildarrak ez zuen espero garaipena, besteak beste, kanporaketan seigarren sailkatu zelako; «Nik espero nuen Zubiagak edo Mugertzak irabaztea, baina Lasak azken orduan ez duenez jokatzetik izan, beste aukera bat ere baren», argitu du aizkolariak zentzu honetan.

280 ikusle

Aipatu moduan, Arbizun izan zen finala igandean eta 280 bat ikusle bildu ziren. Sei aizkolari aritu ziren lanean (Otaegi, Zubiaga, Mugertza, Rekondo, Belarra eta Ugarteburu) eta seina pagoenbor ebaki behar izan zituzten, bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko.



Ondo aritu zen Otaegi, 20 segundoko aldea ateratzen duen Zubiagari. HITZA

Federazio Txapelketarekin hasi da batelen denboraldi berria

Tolosa » TAK ere izan zen Kontxan izandako denboraldiko lehen hitzorduan; herriko bederatzitripulazio izan ziren.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Arraun Federazioak Federazio Txapelketa bezala baitailatu dituzten estropadak antolatatu ditu, hartara klubek otsailan hasiko den ligaxkarako ere berotzen hasteko aukera izan dezaten. Lehen hitzordua Kontxan izan zen eta bertan TAKeko bederatzitripulazio izan ziren. Tolosako klubak, hala ere, kolektorearen lanen eta ibaiaren ur-gordien ondorioz entrenatzeko arazoak izan ditu eta Oriola autobusez joan dira arraunlariak entrenatzera. Datorren estropada Kontxan izango da urtaririlaren 4an 11:00etan.

Zeberio II.ak ezinezkoa zirudien garaipena lortu du

Elduain » Partida bizia izan zen larunbaten Labriten jokatu zutena; Patxi Zeberio 34-35 irabazi zion Miel Mari Urrutiari.

ERREDAKZIOA

Elduaingo Zeberio II izan da IV. Martiko Txapelketako irabazlea. Garaipena ia ezinezkoa zirudien, izan ere, Miel Mari Urrutia 33 eta 26 ere aurreratu zitzaion.

Buruz burukoetan oso gutxitan ikusi ahal den partida eskaini zuten erremontistek; Urrutia oso ondo aritu zen, batez ere sakeetan (zortzi tanto ere lortu zituen zuzenean horrela), baina tantoak bukatzerakoan ere oso lan ona egin zuen Saldiasko erremontistak.

«Ez diot lan egiteari utzi»

Patxi Zeberio benetan kontentut zegoen garaipena lortuta: «Urrutiak oso gauza onak egin ditu partidak honetan, bortizkeria handiz egin ditu sakeak eta tantoak bukatzeko ere lan ona egin du. Niri dagokidanez, berriz, ez diot lan egite-



Zeberio II.ak 34-35 irabazi zion Urrutiari Martiko Txapelketako fi. HITZA

ari utzi, ez dut amore eman eta, bukaeran justu, sakearekin asmatu dut. Orduan lortu dut partidari buelta ematea. Unerik egokienean lortu dut, izan ere markagailuan 34-35ean bakarrik lortu dut aurretik jartzea, azken tantoan. Hau da kirolak ahalbidetzen dituen gauza politetako bat, ezusteko bikaina

izan da». Zeberio, era berean, bere amari, Itziar Ansari, eskaini zion txapela.

Horiek horrela, Iruñeko Labrit pilotalekuan izan zen partida 60 minutuetako izan zen eta Urrutiak 34 tanto eta 10 huts egite izan zituen. Patxi Zeberio berriz, 25 tanto eta 3 huts egite egin zituen.



Lauburuko bi gazte selekzioan

IBARRA » Ibarra Lauburu areto futboleko bi jokalariz gazte, Ander Esnalak eta Etxahun Urkizuk, Areto Futboleko Euskal Selekzioan aritzeko deia jaso dute. Horiek horrela, hilak 27, 28 eta 29an Eibarren izan den Espainiako Txapelketako lehen fasean aritu dira eta datozen hilabeteetan ere selekzioarekin lanean jarraituko dutela esan dute. HITZA

Laburrak

Zesta-Puntako finala urtarilaren 4an

TOLOSA » Beotibar Zesta-Punta Elkartek antolatutako XIV. Urte Zahar Txapelketako finalerdiak urtarilaren 3an izango dira 10:00etatik aurrera. Finalak, aldi, bai infantilena eta baita kadeteena ere, 4an izango da 11:00etan.

Gipuzkoako Kirolari Onenaren saria

IKAZTEGIETA » Atzo gauean, Donostiako hotel batean egindako ekitaldian, eman zituzten jakitera urtero Kutzak banatzen duen Gipuzkoako Kirolari Onenaren Saria. Hautagien artean ikaztegieta Leire Olaberria zegoen.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)



Bihar arte Haur Parkea zabalik egongo da Tolosako Zerkasian; goizez nahiz arratsaldean joan daiteke. E. EZEIZA

Gabonetan, hainbat ekintza Tolosa, Alegia eta Anoetan

Aisia » Oporretan ez aspertzeko asmoz, ekitaldi ugari antolatu dituzte; haurrentzako jolasak eta zinema, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Gabonak direla eta jende asko oporretan dago egun hauetan. Horieta batzuk, ziurrenik, zer egin ez dakitela egongo dira. Baina eskualdean, hau ez gertatzeko, hainbat ekintza antolatu dituzte datozen egunetarako.

Tolosan, esaterako, bihar arte haur parkea zabalik egongo da Zerkasian. Bertaratzen direnek, bideo jolasak, aerogiroa, Bungee Run, txapa tailerra, txutometroa, Santa Fe tren eta puzgarriak aurkituko dituzte. Jolastokia 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bitartean egongo da irekita.

Jokuez gain, zinea ere aukereta-ko bat da egun hauetan. *Kiriku eta basapiztiak* euskarazko filma ikusgai izango da gaur 17:00etan, Lei-

dor antzokian. Film honetan, aitonak, haitzulo urdinean duen tronu horretan eserita, Kiriku lorazain, detektibe, altzegile, merkataria, bidaiari eta mediku bihurtzen den modua kontatuko du. Bestalde, urtarilaren 3 eta 4an, Peter Cattaneo zuzendariaren *Un rockero de pelotas* lana ikusteko aukera izango da.

Zine eta haur parkeaz gain, Toy Store, Zientzialari Zoroen Laborategia izango da Errota Haur Liburutegian, urtarilaren 2an. Tailerra 12:00etan hasiko da.

Anoetan ere ekitaldiak

Hilaren 17an eman zioten hasiera Gabonetako egitarauari Anoetan. Hala, Loatzo Musika Eskolako kontzertuarekin berotu zituzten motorrak. Atzo berriz, Txuri-ur-din izotz jauregiara joan ziren batzuz, eta diabolarekin jolasean aritu ziren beste hainbat.

Eguberrietako ekitaldiei amaiera emateko, urtarilaren 5ean, arratsaldean, erregeen kabalgata izango da eta hurrengo egunean, Anoetako Txistulari Taldearen kalejira, 12:00etatik aurrera.

Alegian, Gabonak eta Gaztetxearen XI. urteurrena

Hilaren 5ean hasi ziren ospatzen Alegiako gazteak Gaztetxearen urteurrena, eta datorren urtearen hasierara arte luzatuko dituzte. Hala, hilaren 4an Alproja antzerki taldearen *Gernika* lana ikusgai izango da.

Udalak prestatutako Gabonetako egitarauari dagokionean berriz, mota guztietako ekintzak ari dira egiten. Alde batetik, gaur amaituko dira pilota topaketak. Bestetik, Urte Berri Egunean, 11:15ean Meza kantatua ospatuko da, bertan izango baita Txintxarri abesbatza. Ospakizunaren ostean, mandarinak eta inxaurrak botako dituzte.

Urtarrilaren 3an jokatu da Eguberrietako pilota topaketen finala. Partida 16:00etan hasiko da. Amaitzeko, urtarilaren 5ean, umeen jolasak izango dira plazan 11:00etatik aurrera. Jarraian, txokolatada, bertaratzen direnentzat. Egun berean, 19:00etan abiatuta, Erregeen kabalgata izango da herri-rian zehar.



Gaztetxean lapurtu dute berriro

ANOETA » Hilaren 25eko gauean ezezagun batzuk atea behartuta, Anoetako gaztetxera sartu ziren. Honez gain, hormak txikitu eta dirua ostu zuten. Hala, herriko gazteek gogor salatu dute ekintza eta adierazi, «oztopo guztien gainetik», herria astintzen, ilusioz lanean, ametsak egi bihurtzen eta gazteak elkartzen jarraituko dutela. HITZA

Abegi eta Caritasi laguntzen ari da Hirukide

ERREDAKZIOA

Hirukidek urtean zehar abian jarritzen dituen kanpainen artean, bi aste hauetan Eguberrietakoari ekin dio. Bertan, Abegi eta Caritasedun produktu iraunkorrak bildu dituzte Batxilergoko 1. mailako ikasleek. Hauek sentsibilizazio kanpaina ere bultzatu dute eskolan eta ikasle guztiei ekintza aurkeztu diete hitzalditxo baten bidez.

Hirukideko ordezkariak azaldutakoaren arabera, «kanpainen helburuak inguruko beharrei erantzutea da, baita ikasleek etxe ondoan duten errealitatea ezagutzeari ere». Dagoeneko, Tolosan dauden beharrez jabetzen ari dira. Martxan jarri duten azken egitasmo honetan ikasleak, familiak, irakasleak eta eskolako beste langile guztiak inplikatu dituzte kanpainen antolatzaileek.

6.300 euro banatu ditu ONCEk Tolosan

Tolosa » Hilaren 25ekoan, 7/39 delako jokuak parte hartu zuen batek eraman du saria; Jose Antonio Fernandez da saltzailea.

ERREDAKZIOA

Olentzerok hilaren 25ean, bi sari eraman zituen Tolosa eta Beasainera ONCeri esker, zehazki 7/39 delako jokua bidez. Alde batetik Tolosan Jose Antonio Fernan-

dez Cabello saltzailearen eskutik 6.300 euroko saria, eta bestetik, kopuru bereko saria ere Beasainen Fermin Amundarain Armendariz saltzailearen eskutik.

Gipuzkoan, gaur egun, ONCEko 247 saltzaile ari dira kupioa eta ONCEn produktuak eskaintzen, eta guztira 1.030 pertsona afiliatuak daude. Hortaz gain, ONCEk Gipuzkoan aurtan eta orain arte, gutxi gorabehera, 12.700.000 eurotik gora banatu ditu saritan.

Publiko ezberdinari zuzendutako filmak ikusgai dira Leidorren

Tolosa » Ohi baino saio gehiago antolatu dituzte Eguberrietarako; denera hamar lan eskainiko dituzte egun hauetan.

ERREDAKZIOA

Eguberri hauetan zinea gustuko duenak ez du aitzakiarik izango, ohi baino saio gehiago izango baitira Leidorren, urtarilaren 6a bitartean.

Bihar, haurrentzako saioaz gain, iluntzean, Zine Forumaren eskutik, Monty Python komedia talde ingelesaren *El sentido de la vida* lana ikusgai izango da, bertsio orjinala. Hau 1983an estreinatu zen eta arrakasta handia lortu zuen. 19:15ean eta 20:45en izango dira saioak. Ostiralean, urtarilaren 2an berriz, 22:30ean Zine Forumeko saio berezia izango da. Costas Kapas-en *Uranya* filma proiektatuko dute.

Hurrengo egunean, urtarilaren

3an, arratsaldean haurrentzako saioa egongo da eta 19:30ean berriz, *Uranya*. 22:00etan, 007 agentearen azken abenturak izango dira ikusgai.

Igandean, urtarilaren 4an, beste hiru saio izango dira. Haste-ko, 17:00etan, haurrei zuzendutako. Ondoren, 19:30ean, Richard Gere y Diane Lane aktoreak protagonista diren *Noches de tormenta* lana emango dute. Azkenik, 22:00etan, berriro ere *Uranya* ikusteko aukera izango da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

G Gutunak**Ur Kontsorzioari bai: Amezketarentzat aukerarik onena delako**

Aspaldian isilik zeundeten, eta Olenzero garaia hautatu duzue niri oparia bidaltzeko. Egia esan ez naiz asko harritu, baina bai tristetu. Izan ere, handia da gai honekiko zuen ezjakintasuna eta informazio-rik eza; neurritz gainez, bestalde, gezurrekin eta erdizkako egiekin herritarrak zuenganatzeko asmoz eta zuen hariko ez naizen udal ordezkaria zikintzeko irrikaz erabili duzen demagogia.

Eta ika-mika zale ez banaiz ere, oraingoan beharturik nago zuenari erantzutera. Herriak jakin behar du, zergatik komeni zaigun Ur Kontsorzioan sartzea, Gipuzkoako herri gehienek egin duten bezala, eta nolaz bota duzen pikutara zuen erabakiarekin Ur Kontsorzioak emango zigun diru laguntza handia eta zerbitzua.

Amezketako Ur Zerbitzuaren egoera: Amezketako Udalak eskaintzen duen ur zerbitzuak galea ekonomiko handiak sortzen ditu. Alegia, herritarrok erabiltzen dugun ur kopuruagatik ordaintzen duguna oso-oso gutxi da zerbitzuak eskatzen duen inbertsioarekin alderatuta. Aurten, adibidez, 56.000 euroko zuloa egingo dugu. Bestalde, ur instalazioak oso egoera txarrean daude. Beraz, dirutza handia inbertitu beharrean gaude. Egoera zail horri irteera egokia

bilatu nahian ibili gara azken urtebete honetan. Ikusita Gipuzkoako herri gehienek Ur Kontsorzioan daudela, aukera hori aztertzen hasi ginen. Eta batzordeetan jasotako kezka guztiak jasotzearekin batera, Amezketako Gobernu Batzordeak Ur Kontsorzioa jo zuen, eta batzordeetan jasotako kezka guztiak kontuan harturik, asko hitz egin ondoren, ondoren zehazten den Hitzarmena adostu zuen:

- Hitzarmenak gaur egun Udalak kobratzen duen sarea bakarrik izango du kontuan.

- Hitzarmena mantentzen den bitartean Zazpitturritik hartuko da Amezketarako ura. (Beraz, hitzarmena indarrean den bitartean, ur eskasirik izan ala ez izan, Amezketak Zazpitturritik izango du ura).

- Gipuzkoako Urak erakundeak ondorengo hiru urteetan, Amezketako ur-sarea berritzeko konpromisoa hartzen du horretarako 150.000 euro jarritz. (Diru horrekin Aralar papeleratik hasi eta Amezta taberna bitarteko ur kanalizazio berria egingo genuke).

- Inbertsio guztiak Udalak onartu beharko ditu.

- Hitzarmenak hiru urteko iraupena izango du gutxienez, eta hortik aurrera Udalak nahi duenean utziko du Gipuzkoako Urak erakundearen kudeaketa, beti ere 4 hilabete lehenago jakitera emanaz. (Hiru urteren buruan Amez-

ketako Udala ez badago adostutakoaren garapen mailarekin utz dezake akordioa bertan behera eta hasierako egoerara itzuliko ginateke).

Beraz, hitzarmen hau eraman genuen Plenora, Amezketarentzat guztiz mesedegarria zen eta denaren ziurtasun osoarekin, baina EAE-ANVk eta AEL taldeak, askotan eginen duten bezala, bat egin eta atzera bota zuten. Ondorengo bileretan, gertatutakoak Amezketari eginen dion kalte gordinak minduta, nik, alkateak, birritan eskatu dizuet birpentsatzeko gaia, herriak 40 milioi pezetan inguru galtzen dituelako, eta alternatiba hoberik baduzue, aurkezteko mesedez. Baina, noski, kaskagorke-riaz ezetzarekin jarraitzen duzue; izan ere, ez baitago beste alternatibarik. Horren orde, prentsara jo duzue biktima arenekin, eta gezur ugariz osatutako testua niri igorritz.

HITZAN eta EAE-ANVren buletinean esandakoaren muina:

1- Ez da egia, Ur kontsorzioaren presa pribatua dela eta dirua egitea duela helburu. Gai honen inguruan hainbeste denbora eraman ondoren, harrigarria da zuek hori ez jakitea. Edota, ez duzue jakin nahi? Ur Kontsorzioa Foru Aldundiak sortutako Erakunde Publikoa da, Udalen artean osatutakoa, eta Amezketako Udala bezala, juridikoki Entitate Lokala da. Beraz, ez du inondik inora helburu-

tzat dirua egitea, herri guztiei zerbitzu integrala eskaintzea baizik.

2- Ez da egia, Ur Kontsorzioan sartuz gero, ura saldu eginen dela. Izan ere, urak ez du jaberik. Gainera, ez al dakizue zuek, hitzez hain ezkertiarak izaki, ura soziala dela eta behar duenari eman behar zaiola? Beraz, Amezketak ez du uraren jaberik, eta jabe ez bada ezin saldu. Amezketak, soilik, Zazpitturriko ura erabiltzeko kontzesioa du, alegia, erabiltzeko eskubidea. Ur Kontsorzioan osoki sartuko bagina (izan ere, altako sarea deitzen den alorrean lehen ere Ur Kontsorzioan gaude), kontzesioak geurea izaten jarraituko luke, orain bezalaxe, eta Ur Kontsorzioak uraren gestioa eramango luke aurrera.

3- Ez da egia, gustu txarreko gezurra baizik, nik eskuak garbitu nahi ditudala esatea. Uraren galeak buruhauste handiak ematen dizkit. Azkenekoa, adibidez, egunean 50 metro kubiko galtzen zituena aurkitzeko bost lagun aritu gara hogeigunegun lanean. Mesedez, seriotasun gehixeago.

4- Ez da egia osoa Otize base-ri gertatutakoari eman diozen tratamendua. Herritarrok jakin dezazuen Otize baserria Amezketakoa da, baina urari dagokionez, Abaltzisketaren eremuan dago, eta Abaltzisketa Ur Kontsorzioan sartuta dago. Eta han gertatutakoa erabili duzue Ur Kontsorzioa kri-

tikatzeko, eta, ustez, zuen tesiak indartzeko.

Antza, Otizeko ur instalazioan matxura gertatu zen. Horren ondorioz, alkatea eta alkateordeak ezin zuten, baserri eremuko arazoek arduratzen den zinegotziari, Agustini, deitu zitzaion. Nik dakidala Agustín zinegotzia Udal zinegotzi bezala joan zen bilerara, eta ez EAE-ANVren kide modura. Beraz, nondik dator hango arazoari EAE-ANVk bakarrik erantzun diola esatea? Ez, ez, hango arazoari Amezketako Udalak erantzun zion. Utz ezazue, beraz, alde batera egindakoaren dominak jasotzeko duzuen neurrigabeko grina, ez baita heldutasun seinale ona. Bestalde, Ur Kontsorzioak gaizki jokatu zuela dioenez arantzuteak oso luze joko liguken hemen, zuek diozuen baina askoz konplexuago baita. Dena dela, izango dugu aukera horretaz ere hitz egingetako.

Eta bukatzeko, gomendio bat. Iritzi ezberdinak izatea oso normala da, eta zenbaitetan aberasgarria. Ideia aniztasun hori azaltzeko eta aztertzeko baditugu hainbat eremu: batzordeak eta plenoa. Erabil itzazue horiek. Eta horretaz gain beste bideak ere erabili behar badituzue, informatu lehenik ongi, bestelana barmen egingo baituzue huts, gai honekin egin duzun bezala.

Jesús Iñurrita (Amezketako alkatea). Amezketak.

Goiza lasaitasunez joan zen larunbateroko azokan

PABLO ALBERDI

Larunbateroko azoka eguna lasaia suertatu zen Eguerberrietako jai-egunak direla eta. Dirudienegun, egun hauetan jandako guztiak gehiegi izan dira gehienentzat, eta oraindik ez daukagu gogoa azokara joateko eta beharrezkoak erosteko. Aurreneko orduetan ez genuen salmentak askorik nabaritu, baina goiza aurrera zihoala eta eguzkia berotzen hasi zelarik, geroz eta bisitari gehiago ikusi genuen, eta salmentak zertxo bait piztu zirela esan daiteke.

Eskaintza ez zen asko aldatu joan den asteko azokarekin konparatuz gero. Neguko barazki asko oso kalitate onekoak, fruta asko, batez ere sagarrak, eta perretxiko gutxi izan ziren salgai mahaietan. Gamuza postu bakarren batean eta ondoak potetan beste postutan.

Berdura plazan Gabonetako apaingarriak eta landareak izan ziren apaingarriko landareen postuetan. Pazko lorea eta honekin ziklamanak eta beste neguko landareak ere bai.

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak		
Azalea	8,50	-
Xarabota	4,00	6,00
Kalendula	2,50	-
Klabeina	2,80	4,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak

Nikaloa	15,00	-
---------	-------	---

Barazkiak (kiloa)

Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00

Tomatea	2,00	4,00
Kalabaza	1,50	3,00

Barazkiak (unitatea)

Kalabazina	0,72	-
Azalorea	1,00	-
Txikoria	1,00	1,25

Besteak

Ogi biologikoa (900gr)	3,20	-
Arrautzak	1,10	2,40
Irasagarra	3,00	6,00

Gaztak

Gazta berria	16,00	-
--------------	-------	---

Ardigazta	14,00	18,00
Behigazta	7,00	7,50

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Fruta

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

Barazkiak

Kalabaza	1,60	3,04
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Erremolatxa	1,60	-
Kogiloak	1,00	-
Letxua	1,00	-

Autoa irabaz ezazu!
Gure bezaroen artean
DACIA SANDERO
autoa azokatzaren dugu

Tolosa

Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Intza.** Herriko Plazan, 300 urteko etxea garajearekin, bertako eran sendotuz eraberritua eta es-treinatzea. Modu onean salgai. Ezinduentzako egokitu. Landetxea jartzeko aukera. Telefono zenbakia: 628 03 07 27 / 646 11 14 85 / 609 21 83 41. Helbide elektroniko: estanga@wanadoo.es.



Bartolaren doinuan 450 lagun

IBARRA ■ Bartolaren Batzordeak 450 lagun elkartu zituen herenegun Ibarako kiroldegian bertso jaialdi bat medio. Batzordea ibili baldin bazen ere antolatzaile lanean, herriko hainbat elkarteren babesa eta laguntza jaso zuen jaialdia antolatzerakoan, hauen artean aurkitzen ziren Pototxotx bertso eskola eta Ibarako Gazte Asanblada. Bertsolariak berriz honako hauek izan ziren: Amaia Agirre, Maialen Lujanbio, Sebastian Liza-so, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Iker Zubeldia. Gaiak Pototxotx-eko kide batek jarri zituen, Mikel Agirrezabalak. Antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkie bertara gerturatu ziren guztiei eta bertsolariari. A. IMAZ

Ibarra ■ Zortzi hilabete igaro beharko ditu espetxean Jimenezek. Bihar atxiloteta salatzeako manifestazioa egingo dute.

«Polizia muntaia» salatu arren, Goar Jimenez espetxean sartu dute



Ibarren egin zuten atzo eguerdian elkarretaratzea. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Behin eta berriz «polizia muntaia» salatu arren, Goar Jimenez ibartarra atzo espetxeratu zuten. Martuteneko espetxean 11:30ean aurkeztu zuen bere burua gazteak; senide, lagun eta hainbat herritar bertan zituларик babesa eta elkartasuna agertzeko asmoz. Orain zortzi hilabete igaro beharko ditu Jimenezek espetxean.

Ertzaintza identifikazio eske

Goar Jimenez elkartasuna agertzeko asmoz 60 bat lagun elkartu ziren espetxe atarian. Lehen unean Ertzaintza joan-etorrian arazorik gabe ibili baldin bazen ere, Jimenezen amaren zain zeudela bertan elkartuak, 12 ertzain inguru irten ziren espetxetik kanpora: «Elkarretaratze hau egiteko ez duzue baimenik eskatu, 20 baina

gehiago zaudete eta pankarta batekin. Nork zeraman pankarta?». Erantzunik ez zuen jaso ertzain buruak. Ondoren, pertsona bati identifikazioa eskatu zion. Han elkarretaratzerik ez zela egin erantzun zion ibartarrak ertzainari. «Identifikatzen ez baldin bazara atxilotu egingo zaitugu» esan eta gero, azkenean bi pertsona identifikatu zituen ertzainak.

Mobilizazioak Ibarren

Goar Jimenezen espetxeratzea salatzeke hainbat ekimen egin ziren atzo Ibarren. Lehenik, 10:30ean herriko plazan elkartu ziren, gaztearekin Martutenera joateko. 11:00etan espetxearen atarian elkartasuna agertu zion 60 lagunek Jimenez. 12:30ean 70 herritarrek elkarretaratzea egin zuten Ibarako anbulategiaren atarian, *Euskal*

Herria salbuespen egoeran, Goar askatu! lelopean. 19:30ean berriz, herrian zehar burutu zen manifestazioan 300 lagun elkartu ziren.

Abenduaren 31n, bihar, protesta ekitaldi berri bat egingo dute 19:30ean, herriko plazatik irtenda manifestazio berri bat egingo baitute. Ezker abertzalearen esanetan «muntaia polizial baten aurrean gaude; ez dute inongo lekukorik beraien bertsioa berresteko. Bide honetatik ez dute gazteen borrokarekin amaituko. Desagertarazi nahi gaituzte, baina ez gaude etsitzeko prest. Guztioan artean herri hau benetako marko demokratiko batera eramateko gai gara, eta egingo dugu. Horregatik hemen-dik herriari deialdi bat egin nahi diogu, mobilizatu dadin, antolatu dadin eta elkartasuna adierazi dezan».



Goar Jimenez senideez eta lagunez inguratutik Martutenen. ASIER IMAZ



MIRARI Parafarmazia

- HAURREN ELIKADURA ETA HIGIENEA
- UMEENTZAKO JOSTAILUAK
- HAURREN ETA HELDUEN DERMOKOSMETIKA

Kale Berria, 56 • Billabona • Tel.: 943 692 351
parafarmazia.mirari@telefonica.net



E Elkarriketa**GEMMA ZELAIA** ▶ Ikastn zerbitzuaren arduraduna

I. TERRADILLOS

«Eskualdeko heziketa guztia norabide bakar batean zabaltzen dugu»

Gizartea » Bi urte daramatza martxan Ikastn bitartekotza zerbitzuak; krisiaren ondorioz, langabetu ugari joan dira azken bi hilabeteetan informazio eske.

INIGO TERRADILLOS

Tolosaldean Ikastn Bitartekotza Zerbitzua 2006ko azaroan sortu zen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Europako Gizarte Funderaren lankidetzarekin. Nahiko berria da, beraz, eskualdean, baina, pixkanaka-pixkanaka ari da zabaltzen, eta herritarrek hasiak dira eskualdeko formakuntzaren berri izateko bertako eskaintza baliatzen. Gemma Zelaia (Tolosa, 1983) da arduraduna, eta «oso gustura» dago ikasturte honetan izan duen erantzunarekin.

Pixkanaka ari dira herritarrek zuengana jotzen informazio eske. Bai, gure webgunearen bidez, (www.ikastn.com), telefonoz, e-mailez edo presentzialki (Tolosalde GM-LH Institutuan dago bulegoa), geroz eta jende gehiago etortzen da, oso gustura gaude.

Non nabaritu duzue, bereziki, gehikuntza?

Iaz, zerbitzua erabili zuten %95a emakumeak ziren. Aurten, gizonak ere parte hartzen ari direla ari gara konturatzeko. Hain zuzen ere, %35a izan dira, irailetik hona. Horietatik, langileak dira %60a, eskatzen dietelako euren lanean ikastaroren bat egiteko eta informazio bila etortzen dira. Ema-

kumezkoen artean, berriz, langileak nahiz langabetuak maila bere-tuan etorri dira. Adinaren arabera, bestalde, 25-40 urte artekoak dira gehien erabili dutenak gure zerbitzua, %43a; ondoren, 40-55 urte artekoak leudeke. Etorri direnetatik %80ak ikastaroren batean hartu du parte. Ikastaroetako gaitasunak, informatikarekin zerikusia dutenak eskatu dituzte gehienek, eta ondoren daude administrazioa, elektrizitatea, gizarte zerbitzuak edota formakuntza arautukoak.

Zein da, zehatz mehatz, zuen egitekoea?

Heziketa guztia norabide bakar batean ematea, hau da, eskualde mailan dagoen eskaintza formatiboak jendearen eskuetara iristea da gure egitekoa, mota guztietako formazioaren inguruan informazioa eskaini eta aholkularitza zerbitzua ematen dugu. Gure lana ez da soilik ikastaro baten edo bestearen berri ematea; jendearen perfla ezagutu, informazioa eta aholkuak eman eta gero, jarraipena ere egiten dugu.

Nori zuzenduriko zerbitzua da?

Berdin du lanean ala langabezia egon, ikasle izan ala jubilatu, edo zein pertsonari aholkularitza eta informazioa emateko zerbitzua da gurea. Formakuntza programa desberdinak daude, eta jendearen ezaugarrietara moldatzen den ikastaroa aukeratzeko saiatzen gara. Eskualdeko formakuntzaren berri ematen dugu, baina, eskualdean ezezik, beste eskualdearen batean ere bideratu izan dugu jendea, hemen ez zegoelako eskatzen zu-

tena, edo hemengo eskaintza ez zaielako ongi etortzen, esaterako. **Zuek ere eskaintzen dituzue ikastaroak, ezta?**

Gure zerbitzuak ere eskaini ditu ikastaroak, ikusi dugulako eskaera handia zegoela. Oinarritzko informatika ikastaroen hiru talde buka-tu ditugu, sukaldaritza aurreratua ere egin dugu Villabonan, eta mar-txan dago sortze literarioa eta adi-men emozionaleko tailerra. Hu-rrengo urteko otsailetik aurrera ere antolatuko ditugu gehiago. Saiatzeko gara ikastaroak antola-tzen, baina, beti ere, oztopatu gabe eskualdean dagoen eskaintza. Es-kaeraren arabera egiten dugu, hau da, ikusten badugu eskaera eta be-har handia dagoela gai jakin bate-an, gu ere antolatzen saiatzen gara. **Krisia ere nabaritzen al da forma-kuntzan?**

Bai, asko. Langabetu ugari etorri zaizkigu azken bi hilabeteetan. Asko 40 urtetik gorakoak, urte ugari igaro dituztenak lanean en-presa batean, eta gauek goizera euren burua kalean ikusi dutenak. Ondorioz galduta sentitzen dira. Horren aurrean jendeari informa-zioa ematen diegu, dituen aukerez, eta aholkuak ematen dizkiegu. Baina langileak ere geroz eta gehiago ari dira formakuntza eska-tzen egungo egoera gogorak bul-tzatuta edo. Era berean, jubilatuak ere geroz eta gehiago datoz infor-mazio eske.

Zerbitzua martxan jarri zenute-netik, hainbat hobekuntza egin dituzue. Webguneari, esaterako, garrantzi berezia eman diozue. Ikastn webgunea Tolosaldeko

prestakuntza eskaintzaren ataria da. Web orriaren diseinua aldatu egin dugu, eta orain errazagoa da. Atal ezberdinetan banatuta dago: Bozi atalean, Ikastn zerbitzuak an-tolatzen dituen formakuntza jar-duerak eta zerbitzuari buruzko in-formazioa topatu daiteke; albiste-gian, eskualdeko albisteak ageri dira; ikastaroak atalean, eskualde-ko formakuntza eskaintza aget-zen da, eta bilaketa bidez ere egin daiteke; entitate formatiboetan, eskualdeko ikastetxe, mota guztie-tako elkarte, udaletxeak eta abar ageri dira; kontaktuan, zerbitzua-rekin on-line jartzeko aukera dago, eta azkenik, loturetan, ikas-kuntza, enplegua, formakuntza-rekin... zerikusia duten loturak dau-de. Gero, informazioa lagun bati bidaltzeko aukera ere badago, eta boletin elektroniko pertsonaliza-tua ere bidaltzen dugu, eta SMS zerbitzua ere badugu erregistra-tzen direnentzat. Orain, garrantzi-tsua, jendea sartu eta erabiltzea da.

Beraz, nahi duenak, erraza du in-formazioa eskuratzeko.

Orain errazagoa da prestatzea. Le-hen, langabeak, esaterako, lanbi-dera joaten ziren edo INEMera, baina, orain, prestakuntzarekin lo-turiko lehiatila bakarra dugu, edo-zein kontsulta egiteko, eta bai pre-sentzialki, telefonoz, edo webgu-nearen bidez egin daiteke. Gainera, 08:00etatik 20:00etara martxan dagoen zerbitzua da. Be-raz, uste dut, orain ikastaroetako edo formakuntzari buruzko informa-zioa edo aholkua nahi duenak le-hen baino errazago duela.

Tolosako Musika Bandaren doinu ugari izango dira Eguberrietan

Musika » Denera, 5 saio eskainiko dituzte; bihar, Urte Zaharreko kalejira egingo dute, 20:00etan, Gorriti plazatik.

ERREDAKZIOA

Tolosako Musika Bandaren pre-sentzia nabaria da Eguberrietan, izan ere, bost emanaldi izango ditu orotara egun hauetan: Hilaren 24ean eguerdian Gabonetako doi-nuen kontzertua eskaini zuen Zer-kausian eta gauean, berriz, kalejira egin zuten Gorriti plazatik abiatu-ta. Bestalde, bihar, Urte Zaharreko kalejira egingo dute Gorriti plaza-tik 20:00etan abiatuta; urtarri-la-ren 5ean, Errege Kabalgatan, San-ta Klaratik abiatuta ariko dira, eta hilaren 6an, eguerdian, Errege kontzertua eskainiko dute, Straus-sen balsak eta polkak izango dire-larikentzuegi, Musika Eskolako entzundegian.

Tolosako Musika Bandak herri-tar guztiak, gonbidatu nahi ditu euren emanaldietara.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 652339

Asteasu. Medikua: 943 692423**Baliarrain.** Medikua: 943 889003**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134**Ibarralde.** Osasun etxea: 943 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720**Leizta.** Osasun z.: 948 510800**Orendain.** Medikua: 943 655595**Orexa.** Medikua: 943 682228**Tolosa.****Anbulatorioa, larriald:** 943 461111**San Esteban:** 943 006800**Gernikako arbol:** 943 006900**Amarozko dispen:** 943 672637**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536**Gurutze Gorria:** 943 674888**Villabona.** Anbulat.: 943 006970**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930**GARRAIOAK.****Renfe:** 902 24 02 02**Donostiako autobusa:** 943 361740**Tolosalde bus:** 943 650621**Leiztaran autob.**: 948 221015**Taxia:** 943 670420**Taxia (Leizta):** 608 873016**BESTERIK.****Ertzaintza:** 943 538820**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858**Tolargi:** 943 650016**Ikurramendi egoitza:** 943 670325**Tolosa gasa:** 943 675320**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

Berrobitik mundura zuzenean

Eskola » 'Lur-Bira' egitasmoari esker «pribilegiatuak gabela» eta «denak berdinak gabela» ikasi dute Berrobiko eskolako haurrek.

REBEKA CALVO

Sibeli, Mia, Xiping, Xiaofeng, Baba, Luda, Agurtzane, Mohamed, Abdul, Driss, Yunes, Yasushi, Carmen, Josu, Emilio, Mikel eta Yolik mundua beste begi batzuekin begiratzen erakutsi diete Berrobiko eskolako haur eta gazte txoei. Eskolan azken hiruhilekoan *Lur-Bira* egitasmoa landu dute, zeinarekin munduko beste toki batzuetako kultura, bizimodua zein bestalako bitxikeriak ezagutzeko aukera izan duten. Horretarako herrialde desberdinetakoak diren eta gure inguruan bizi diren lagunak gonbidatu dituzte azken hilabeteetan eskolara.

Doraemon kantatuz mundura

Egindako lan mardula orain gutxi aurkeztu zuten guraso eta irakasleen aurrean eskolan bertan. Ekitaldia ume guztiek aski ezaguna duten kantu batekin hasi zen, marrazki bizidunetako Doraemonekin, hain zuzen. Noski, txinatarrez kantatuz.

Ondoren Brasilera salto egiteko garaia iritsi zen. Sibeliaren bidez izan dute gazteek Brasileko errealitatearen berri; 8 milioi kilometro koadro dituela, jede asko bizi dela, musika oso gustuko dutela, herrialde askotako pertsonak biltzen direla, Capoeira zer den...

Finlandiaren berri izateko, berriaz, Mia izan dute lagun Berrobiko eskolakoek. Mia Arroan bizi da orain, euskaraz ikasi du eta besteren artean, Finlandiako eskolak nolakoak diren kontatu die gazteei. Australian ere egin zuten geldialdia; bertako inorekin zuzeneko harremana edukitzea ez da posible izan, baina eskola batekin eskutitz eta Internet bidez aritu

dira harremanetan. Argazkiak ere bidali dizkiete eta orain Australia-ko bizimoduaren berri badute.

Txinako lagunak ere egin dituzte; Tolosan lan egiten duten bi txinatar, Xiaofeng eta Xiping. Eskolako izan ziren euren herrialdeko bizimoduaren inguruan hitz egiteko eta Txinako eskolen zorrotzasunak harritu zituen gazteak. Ume bat bakarrik eduki ahal dutela ere harritu ditu, hizkera, natura ia ez dutela errespetatzen...

Afrikara ere egin dute azken hilabeteetan bisitarik, Senegalera, hain zuten. Baba gaztearen lekukotasuna jaso dute horretarako. Babak diskoak saltzen ditu kalean bere familiari dirua bidali ahal izateko. Berak kontatutakoari esker Berrobiko eskolako haurrek emigrazioak sortzen dituen arazoengatik informazio jaso dute; pateretan egindako bidaien krudelotasuna ezagutu dute, euren bizimodua oso zaila dela...

Mexikon egindako geldiunean, Berrobiko Agurtzane izan zuten lagun. Agurtzane Chiapasen egon zen hilabete batez eta bertako argazkiak eta lekukotasunak ekarri zituzten gazteei. Honi esker orain badakite Mexikon 31 estatu daudela, 62 hizkuntza indigena daudela, gastronomia ezagutzen dute, erritual desberdinak...

Ukrania, Japonia, India...

Behin Brasilgo, Finlandiako, Australiako, Txinako, Senegaleko eta Mexikoko inguruko zein kantu desberdinen inguruko errepaso eginda Ukrainiaren txanda ere iritsi zen. Luda da Ukrainiako laguna, berez irakasle dena, baina hemen etxeak garbitzen aritzen dena. Ukrainian haur asko probetrian



Finlandiako Mia eta Ukrainiako Luda ere gerturatu ziren eskolara jendaurreko aurkezpenaren egoteko. R. CALVO

bizi direla ikasi ahal izan dute Luda-ri esker eta baita irakurtzen jakitea ere berebiziko garrantzia duela. Maroko eta Saharako lagunak ere izan dituzte; Mohamed, Abdul, Driss eta Yunes. Kamioi azpian etorritakoak dira eta zergatik etorri diren kontatu zieten gazteei. Era berean, adintxikikoak direla eta orain Tolosako babes etxean daudela ere argitu zuten.

Azken lagunak Japoniakoak eta Indiakoak izan ziren. Japoniatik Yasushi gerturatu zen Berrobira eta Indiatik Carmen. Herrialde hauetako xehetasunen berri eman zieten gazteei.

Ondorioak

Hilabete hauetan entzundako guztien inguruko hausnarketa eginda gazteek bi ondorio atera dituztela ere argitu zuten: «Pribilegiatuak gabela, Afrikan biziko bagina seguru ez ginatekeela hain ondo biziko-eta; eta denak berdinak gabela eta horregatik errespetatu behar dugula elkar».

Era berean, munduan mila milioi pertsonatik gora goseak jota daudela ere gogoratu nahi izan zuten gazteek eta zentzu honetan «gure laguntza» behar dutela azpimarratu zuten. Horiek horrela, Senegalerako anbulantzia bat erosi ahal izateko hilaren 24an kantatzen ateratzerakoan jaso zuten diru guztia horretara bideratuko dutela ere esan zuten.



Gazteak izan ziren herrialdeetako xehetasunak emateko arduradunak. R. CALVO



Herrialdeetako bizimoduaren azalpenekin batera kantatu ere egin zuten. R. CALVO

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalea: 687 410 118. leitzalea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alegia.** Pilota topaketak
16:00etan hasita. Finalak urtarillaren 3an ordu berean.
- **Irura.** Xilipurdi haur berbera haur eta gaztetxoentzat, frontoian, 17:30ean.
- **Irura.** Kandelagintza ikastaroa, 17:00etan, Gaztelekuan.
- **Tolosa.** Haurrentzako puzgarriak eta jolasak Zerkausan, goizez eta arratsaldean.
- **Tolosa.** Gazte Astea Gazte Topagunean: Gabonetako oparien tailerra, Ping-Pong txapelketa, Futbolen txapelketa, Patinaia irtera, Mahai-jolasen maratona. Izen-ematea: Gazte Topagunean (Kultur Etxea).
- **Tolosa.** XXVII. Eguberrietako Shanti areto-futbol Txapelketa Usabal kiroldegian, haurren mailan, egunero goiz eta arratsaldean. Finalak Errege egunean goizean. Antolatzailea: Shanti Kirolak dena.
- **Tolosa.** Merkatu txikia India eta sahararrei laguntzeko, Kultur Etxean. Laskorain ikastolaren proiektu solidarioa. Goizez eta arratsaldean zabalik.
- **Tolosaldea.** Abian da Sahararen aldeko Euskal Karabana, Piztu Itxaropena lelopean. Eskualdean, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin ari da aurrera eramaten janari bilketa: arroza, lekaleak, pasta, hegazuak oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak. Udaletxeetan, supermerkatuetan edota Laskorain ikastolaren Merkatu Txikian utzi ahaliko dira.
- **Tolosaldea.** Tolosaldea Gara-



Egindako lanarengatik saria

HERNIALDE ● Itsaso hernialdearrak denboraldian zehar nabarmendu diren txirrindulariak saritze-ko Euskadiko Txirrindularitza Federazioak banatu ohi dituen sarietako bat jaso berri du. Debarrena-Kirolgi taldeko txirrindularia Espainiako Txapelketa irabaz-

teagatik saritu dute eta honek datorren urteko denboraldi osoa soilik bizikletari eskaintzea ahalbidetu dio Hernialdeko gazteari. Era berean, Leundak Spiuk taldearen babesak jaso du, horrela era guztietako kirol materiala jasoko duelarik. HITZA

tzenen Immigrazio Sailak literatur lehiaketa antolatu du *Emakumeen kontribuzioa migrazio prozesuetan* gaiari buruz, euskaraz eta gaztelaniaz, 16 urteko behararentzat eta gorakoentzat. Lanak Tolosaldea Garatzenen (San Esteban, Tolosa) egoitza utzi ahaliko dira.

Erakusketa

- **Alegia.** Ander Gillenea eta Josune Martinez de Albeniz argazkilariek *Galiza Beltua* erakusketa daukate ikusgai jubilatuen tabernan.
- **Tolosa.** Juan Jose Agirre tolosarraren margolan erakusketa Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Basoa erakusketa Aranburu jauregian, Ingurugiro departamentuak antolatuta, La Caixaren babespean.
- **Tolosa.** Ana Jesus Ansorena tolosarrak buztin egosian egindako lanak ditu ikusgai Lanbroa tabernan.
- **Tolosa.** Xabier Salazarren beira lanen erakusketa dago ikusgai Fronton kafetegian.

Zinema

- **Tolosa.** *El sentido de la vida* filma Zine Forumean, Leidor aretoan, 19:15ean eta 21:45ean.
- **Tolosa.** *Kiriku eta basapiztiak*, gaztetxoentzako filma, Leidor aretoan, 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €
Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140 €
-----------------	--------------------

Salmenta puntuak:
• Galtzaundi eta
Tolosaldeko eta
Leitzaldeko
Hitzako bulegoetan,
• Tolosako Aranburu,
Babel eta Elkar
liburudendetan,
• Ibarako Lurdes
liburudendan,
• Villabonako Basajaun
liburudendan.

